

**2014KO ABENDUAREN 18AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hemezortzia.

HILABETEA: Abendua.

URTEA: Bi mila eta hamalau.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Leire Artola Ugalde
- Eva Diaz del Rio
- Encarna Arrieta Telleria
- Alfonso Segade Gonzalez
- Santiago Urdampilleta Dos Santos
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEAK: Asier Sarriegui Zumarraga
M^a Luisa Valles Fernandez
Josi Insausti Mujika
Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2014ko azaroaren 20ko aktaren onespena.

2014ko azaroaren 20ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA. Tarifak aldatzea. Hasierako onspena.

Alkate jaunak Hazienda batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Kontutan izanik Gizarte Ongizate Batzordeak udal etxez-etxeoko laguntza zerbitzua jasotzeagatik gehiengo ekarpena orduko 16 €tan finkatzeko proposamena, eta Tasaren Ordenantza arautzailearen eranskina horretara egokitu nahian, Hazienda Batzordeak 2014ko abenduaren 15ean egindako bileran erabaki du, etxez-etxeoko laguntza zerbitzua emateagatiko tasa aldatzeko proposamena egitea Udalbatzari eta ondoren zehazten den moduan finkatuta uztea:

Zerbitzuaren kostuaren gainean erabiltzaileak egingo duen ekarpena ondorengo ekarpenen taularen arabera zehaztuko da:

<i>Ekarpena</i>	<i>Sarrerak</i>
<i>%1,5</i>	<i>EAEAP %110 arte</i>
<i>%4</i>	<i>EAEAP %111-115</i>
<i>%8</i>	<i>EAEAP %116-125</i>
<i>%15</i>	<i>EAEAP %126-150</i>
<i>%24</i>	<i>EAEAP %151-175</i>
<i>%35</i>	<i>EAEAP %176-200</i>
<i>%48</i>	<i>EAEAP %201-225</i>
<i>%61</i>	<i>EAEAP %226-250</i>
<i>%74</i>	<i>EAEAP %251-275</i>
<i>%82,18</i>	<i>> EAEAP %276</i>

Etxez-etxeoko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindu beharreko tasa, zerbitzua jasotzen hasten den ekitaldian, aurreko taularen arabera kalkulatu da.

Zerbitzuan bazarik ez dagoen bitartean, urte natural bakoitzaren hasieran Euskal Autonomia Erkidegoaren urte arteko KPlaren arabera eguneratuko da tasa.

2.006ko uztailaren 26ko G.A.O.ean argitaratutako ekarpenen koadroa indarrean sartu aurretik zegoen baremoaren arabera zerbitzua ordaintzen zuten erabiltzaileei, aurreko atalean azaldutako egunerapen irizpidea aplikatuko zaio.

Nolanahi ere, Udalak erabiltzailearen egoera ekonomikoa berrikusteko eskubidea erreserbatzen du, honen arabera tasa eguneratu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Etxez-etxeko laguntza zerbitzua emateagatiko tasaren aldaketari hasierako onespina ematea.

Bigarren. Jendaurrean jartzea hogeita hamar laneguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betikoa izatea pasako da.

3.- DIRULAGUNTZAK EMATEA. Udal Euskaltegian euskara ikasteagatik langabezia daudenei dirulaguntza ematea matrikula ordaintzeko.

Alkate jaunak Hazienda batzordearen proposamenaren berri eman du:

“Udal Euskaltegiko Fundazio Batzordeak 2014-2015 ikasturtean matrikulatutako langabetuen alde dirulaguntzak ezartzeari buruz hartutako erabakia kontutan izanik, Hazienda Batzordeak 2014ko abenduaren 15ean egindako bileran Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egitea erabakitzen du:

Lehenik. *Hasierako onespina ematea 2014-2015 ikasturtean Udal Euskaltegian matrikulatutako langabetuen aldeko dirulaguntzak ezartzeari, onuradunen baldintza eta bete beharrekoekin batera eta egindako eskaera eredu, guztiak organismo autonomoaren Fundazio Batzordeak onartutakoak 2014ko abenduaren 9an eta honekin batera doazenak, hau da:*

BALDINTZAK ETA BETE BEHARREKOAK:

Hasieran ekarri beharrekoak:

LANBIDEko ziurtagiria.

Bankuko ziurtagiria.

UEko inprimakia sinatua: Konpromiso idatzia (eranskinetan).

Ikasturtearen amaieran:

Ikasleek bizi-tza laborala ekarri behar dute.

Bete beharreko baldintzak:

Asistentzia %100.

Ikastaroa uzteko onar daitezkeen arrazoiak penalizaziorik gabe: LANBIDEK lana eskaini.

Justifikatu beharreko faltak (horiek bakarrik onar daitezkeelako):

LANBIDEK deitu izana.

Medikuarengana joan izana.

Ikastaroa justifikatu gabe utziz gero:

Kontu korrontetik matrikula osoa kobratuko da.

Lana lortuz gero, eta ikastaroan jarraitu nahi izanez gero, zati proportzionala kobratuko da, honela: hiru hilabeteka kalkulatu.

Lana modu ez-jarraian eginez gero ikasturtean zehar, baremo batzuen arabera jokatuko dugu kobratzerakoan:

Klase-orduen %10 bada, ez da kobratuko, langabetutzat joko da.

Klase-orduen %25 bada, %25 kobratuko zaio.

Klase-orduen %50 bada, %50 kobratuko zaio.

Klase-orduen %75 bada, %75 kobratuko zaio.

Klase-orduen %100 bada, %100 kobratuko zaio.

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

TELEFONOA:

E-POSTA:

KONTU KORRONTEA:

BANKETXEA:

ZK:

TITULARRA:

2014-2015. ikasturtean, Beasaingo Udal Euskaltegian izena ematen dut doako ikastaroa egiteko, langabetuentzako baldintza bereziak onartuta:

- 1. %100eko asistentzia betetzea.*
- 2. Lanbidek deituta eta gaixotasuna dela eta izandako asistentzia faltak behar bezala justifikatzea.*
- 3. Gutxieneko aprobetxamendua izatea (urrats bat aurreratzea.*
- 4. Goiko hiru baldintzak bete ezean, ikastaroa ordaintzea.*

Eta behar bezala jasota gera dadin dagozkion ondorioetarako honako hau izenpetzen dut Beasainen 2014ko ren n:

Dokumentu honekin batera aurkeztu beharrekoak:

- Banketxearen ziurtagiria (kontuaren titularra adierazten duena).
- Lanbideren ziurtagiria (EABA).

Bigarren. Informazio publikoan jartzen da 30 eguneko epean, murtziloak eta iradokizunak aurkezteko. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten, behin-betikotzat onartua geldituko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

4.- ORDAINSARIAK. Osagarriak onartzea, kategoria handiagoko lanak egiteagatik.

Alkate jaunak, antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

I.- 2014-10-09ko datarekin, Alkateak dokumentu bat sinatu zuen langileen ordezkariekin goragoko kategoriko lanak egiten dituztenei, titularrak ordezkatzuz, ordainsariak emateko.

II.- 2014-03-20ko Idazkaritzako txostenaren arabera, ordainsari osagarriak ordaintzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da. Ordainsari horiek izaera objetiboa dutenez, proposamen honen helburua da, dagokion eskumena duen organora bidaltzea honako proposamena:

AKORDIOAREN PROPOSAMENA:

GAIA: Goiko kategoriko lanak egiteagatik ordainsariak.

Lehenengoa.- Enplegatu publiko baten hutsegite justifikatua dela eta beharrezkoa balitz bere zeregin, lan edo/eta erantzukizunetan edo hauetako batzuetan ordezkatzea, ordainsari txikiagoak dituen beste langile batekin, azken honek, goiko kategoriari dagozkion ordainsariak jasoko ditu, bere osotasunean edo dagokion zati proportzionalan edo postuaren ordezkapen osoa edo partziala egin duenaren arabera.

Ordezkapen proposamen hau, Saileko Arduradunak idatziz egin beharko du, eta bertan jasoko dira, ordezkapenaren ehunekoa edo goiko kategoriko zein lan egingo dituen; eta baita ere ordezkapena egiteko proposatutako langilea. Bere atxikipena, Alkatetzako Ebazpen bidez egingo da, eta aipatuko dira ordezkapenaren haserako data eta aipatutako ordezkapenak ekarriko duen ordainsaria.

Ekimen hau Alkatetzak ere egin ahal izango du justifikatuta dagoenean eta horrela deritzonenean, eta Sailaren Arduradunak ez dagoenean, langileen ordezkaritzak ere proposatu ahal izango du.

Lan horiek era boluntarioan egingo dira, baina presazkoa edo atzeratu ezinezko beharrezan bat sortzen bada, ezinbestean eman ahal izango da lan hori, aldeztu aurretik interesdunari horren berri eman eta gero edo pertsonalaren ordezkaritzako organoari jakinarazi eta gero.

Langile baten behin behineko ordezkapena egin ahal izateko, buruzagitzak eta hirugarrenen gaineko ardurak dutenak edo/eta dokumentuen sinadura dutenak hartuko dira tipifikatutako suposizio bezala.

Neurri hauek martxan sartzen jarri behar diren Sailetan eta aurreko paragrafoko suposizioen bat ematen bada, urtero, ordezkapenak dokumentu bakar batean planifikatu ahal izango dira eta bertan jasoko dira: orokorrean zein kasuetan emango den, ordezkatu beharreko ehunekoa eta ahal izango balitz ordezkapena egingo duen edo duten langileen erlazioa.

Beste suposizio batzuetan figura hau aplikatu nahi izango balitz, une horretan zehazten den moduan jokatu beharko da.

Bigarren. Erabaki honek 2015 ekitalditik aurrera egiten diren ordezkapenei eragingo die.

Hirugarren. 2014 ekitaldian egindako ordezkapenak, Agente Lehenaren bajei eta antolakuntza arduradunari dagozkionak izanik eta agente eta Idazkaritza eta informatika sarearen kudeaketarako administrariak, hurrenez hurren, gauzatu dituztenak, ordainduko dira ebatzitako lehen eta bigarren puntuetan adierazitakoa kontutan izan gabe, ondorengo zenbatekoan:

- a) Agentearen kasuan, Agente Lehena ordezkatuko duena, ordezkapena egiten den epealdiari dagokion ordainsari mailen arteko aldearen berdina izango da.
- b) Idazkaritza eta informatika sarearen kudeaketarako administrariaren kasuan, 2014. Ekitaldian Antolakuntza Arduradunaren zereginen zati bat egin zuena; ordainsariak 200 € gordinak hileko kontzeptu guztiengatik izango dira.

Laugarren.- Akordio honek bertan behera uzten du orain arte gai honen inguruan egon daitezkeen akordioak

Bostgarren.- IRAUNALDIA: Akordio honen iraunaldia 2014. ekitalditik hasi eta akordioa aldatu edo bertan behera uzten denean iraungiko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

5.- EUSKAL FONDOA. Beasaingo Udala Euskal Fondoan parte hartzea.

Ezagutzera eman da, gizarte-ongizate batzordeko proposamena:

“Badira jadanik legealdi batzuk non Beasaingo Udalak lankidetzaz egitarau ezberdinei bere aurrekontuko %1a zuzentzen duela:

- Garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetzaz proiektuak finantzaketa (kopuruaren %70a).
- Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak (%15a).
- Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programa (%7a).
- Beasaingo gazte laguntzaileentzat bekak(%8a).

Lankidetzaz proiektuen eskaerako espedienteak, dagozkion balorazio, ebazpen, hitzarmen sinadura, jarraipen, laguntzaren zuriaketa eta kasu bada laguntzaren itzulaketa ebazpenak, saileko teknikari eta administrarien dedikazioa handia eskatzen du.

Euskal Fondoan irabazteko asmorik gabeko elkarteak da, non Tokiko Korporazioak eta euskal eremuko udal-izaeradun beste hainbat erakunde biltzen diren, besteak beste bere helburuak hauek direlarik:

- Garapen bidean dauden herriekin lankidetzaz lagundu, garapen ekonomiko edo sozialerako edota sentsibilizaziorako egitasmo eta programak sustatuz, finantzatuz edo kudeatuz.
- Elkarlan deszentralizatuan tokiko erakundeen partehartzea bultzatu eta beraien arteko koordinazioa indartu.

Aipatutakoa kontutan izanik eta Euskal Fondoak garapen bidean dauden herriekin lankidetzaz laguntza bermatzen duelakoan, Gizarte Ongizate Sailak 2014-12-04ean egindako bileran ondorengoa proposatzen du:

- *2015eko urtarrilaren 1etik udala Euskal Fondoan sartzea.*
- *Lankidetzaren proiektuen finantzaketari dagokion %70eko ekarpena erakundeari egitea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

6.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2014ko azaroaren 17tik abenduaren 13arte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2014ko azaroaren 17tik abenduaren 13arte Alkate jaunak emandako Ebazpenak

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu:

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta hogeita bostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.